

# GAZ-T Aisialdi Taldea: Gazte gara gazte!

**A**urrerago esan dizuegun moduan, Atxutxiamaikaren helburu nagusia Elgoibarko umeak, jolasa eta euskara soka berean lotzea da. Baina umeak ez dira izaten ume betiko. Edade batetik aurrera, ume izateari laga eta gaztetxo izatera pasatzen dira.

Gainera, kasu asko eta askotan, hizkuntza-aldaketa ere gertatzen da adin horretan. Umetan euskaraz egiten duten asko gaztelaniaz berba egiten hasten dira 12 urteren bueltan.

Hala, 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoekin lan egiteko helburuarekin, 1998an aurkeztu zen GAZ-T Aisialdi Taldea.

GAZ-T taldearekin, besteak beste, euskaraz ere guai pasa daitekeela erakutsi nahi da; gaztetxoek euskaraz ere rollitoak izan ditzaketela; euskaraz ere izan daitekeela kolega; lehen parrandak euskaraz ere egin ditzaketela.

Hala, gaztetxoentzako jarduerak prestatzen hasi zen GAZ-T taldea. Udaleku itxiak (Muxika, Askizu, Urdirutz, Angosto, ...) eta egun bateko irteerak (PIN parkera, eski-irteerak, painball, ...) izan dira, batez ere, gaztetxoentzat prestatu diren jarduerak.

Baina, lanean hasteaz bat konturatu ziren gaztetxoena terreno zailagoa dela. Ez dela umeena bezain erraza. Edade horretan beste interes batzuk daudela, eta beste era batera egin behar dela lan.

Alabaina, eta gaztetxoena terreno zaila den arren, helburu batzuk lortu ditugu.

Etorkizunari begira, Udalak eta Elgoibarko Izarrak hitzartuta daukate Elgoibarren Gazte Lokala prestatzeko konpromisoa. Gazte Lokala gaztetxoek aisialdiari eragiteko zentroa eta motorra izango da. Bertan erabakiko da zer nahi duten gaztetxoek, eta bertatik prestatuko dira ekintzak eta jarduerak. Gaztetxoak izango dira protagonistak, eta Elkartearen lana gaztetxoek behar eta nahiei laguntzea izango da.

Dena pentsatu eta nahi bezala irteten bada, Gazte Lokaleko ateak 2005ean zabalduko dira. Eta, esan bezala, Gazte Lokaleko ateak zabaltzearekin batera, 12-17 urte arteko gaztetxoekin lan egiteko metodologia berria jarri nahi da martxan.

*GAZ-T taldearekin, besteak beste, euskaraz ere guai pasa daitekeela erakutsi nahi da; gaztetxoek euskaraz ere rollitoak izan ditzaketela; euskaraz ere izan daitekeela kolega.*



ATXUTXI umeentzat eta GAZ-T gaztetxoentzat. Formalak dirudite, ezta?



·74·

Baina horiek ere arriskutsuak dira armaren bat emanez gero!



Eskerrak beroaldiak elurretara joanda pasatzen zaizkien.